

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Legazpiko Agenda 21eko Foroa maiatzaren 13an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:00etara

Ez duzu benetan gauza bat ulertzen, zure amonari
azaltzeko gai zaren arte.
Albert Einstein

Agenda:

Gaur hemen bildu gara Foroari interesatzen zaion gaia lantzeko: **merkataritza berdea Legazpin**. Horretarako merkataritza talde bat izan dugu gure artean eta haiek gaiaren inguruan eman dituzten urratsak eta martxan jarriko dituzten neurri berriak adierazi dizkigute.

Horrez gain, bilera hau baino lehen, arratsaldeko 17:45ean, Legazpiko Eskola-agenda 21eko neska-mutilek prentsaurreko bat eskaini dute eta apirilean egin genuen Foroan hitz egindakoa azaldu dute. Gaia: Milurtekoaren helburuen gainean egin duten lana eta epe laburrean martxan jarriko dituzten ekintzak.

Gai horiek eta beste asko aztertu ditugu gaurko tailerrean. Ikus dezagun nola!

17:45ean. Eskola-agenda 21ek emandako prentsaurrekoa



Eskola-agenda 21eko Foroan eta apirilean egin genuen azkeneko Foroan sortu zen ideia jaso eta Legazpiko neska-mutilen ordezkariak prentsaurrekoa eskaini dute.

Haiekin egon dira gure Foroko hainbat kide (eskerrik asko guztioi!) Neska-mutilek Milurtekoaren helburuen gainean egin duten lana azaldu dute. Halaber, lan horren emaitzak eta aurreikusi dituzten ekintzak adierazi dituzte. Zehatz-mehatz, laster bidezko merkataritzako produktuekin egingo

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

duten azoka solidarioaren berri eman dute. Azoka hori maiatzaren 21ean izango da, goizeko 9:45etik 11:45era, plazan, asteroko azoka ospatzen den lekuan. Horren berri jaso dugu maiatzaren 21ean azokara hurbiltzeko!

18:30ean. 2010ean egingo dugun Legazpiko Agenda 21eko bosgarren foroa bildu da.

Poliki-poliki, udaletxeko Batzar-aretoa aurpegi ezagunekin betetzen hasi da. Gainera, gaur gure artean merkatari-talde bat dugu, "produktu berdeak" eskaintzeko lanean ari diren Legazpiko 13 merkatarien izenean etorri dena.

Eskerrik asko guztioi eta bakoitzari, berriro ere Legazpiko Agenda 21eko Foroari itxura eta kolorea eman diozuelako.


Legazpiko merkatari-talde baten izenean: Mailo Pinillos ♦ Bittor Larraza ♦ Rafa Urcelay ♦ Iban Odriozola eta Aitziber Santa Kruz (GATC-UGGASA)

Eta gainera: Bixente Garmendia (zinegotzia) ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Manuel Fernández (Nagusilan) ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Isabel Sanz (Gazteria eta Hezkuntzako teknikaria) ♦ Miriam Orozko ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ José Ramón Hernández (Nagusilan) ♦ Floren Gutiérrez ♦ Ane Odriozola ♦ María José Cantero (Nagusilan) ♦ Pedro Barroso (Nagusilan) ♦ María Ángeles Prieto (Buztintegi) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Jone Azpeitia (Nekazaritza eta hirigintzako teknikaria) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar Montejo (Prometea, SC).


Guztioi, eskerrik asko! Hitz gutxik laburtzen dutelako Foro honetan egiten duzuen, eskerrik asko!

Hastera goaz! Berriak

Ongi etorriarekin hasten gara eta, ondoren, hainbat berri eta ohar interesgarri eskainiko ditugu. Zehatz-mehatz, Inmak Legazpin laster izango diren eta Tokiko agenda 21arekin zerikusia duten ekintzen berri eman digu. Jaso egin ditugu!



- Osteguna, maiatzaren 19an. **Hitzaldia: "Arduraz kontsumitzera lagunduz"**, Gizarte-zentroan arratsaldeko 18:00etan, Emaus taldearen eta Legazpiko Udalaren eskutik.
- Ostirala, maiatzaren 21ean. **Azoka solidarioa** bidezko merkataritzako produktuekin, goizeko 9:45etik 11:45era asteroko azokan. Aurtengo ikasturtean Eskola-agenda 21ean lanean ari diren neska-mutilek antolatu dute.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Uda aurretik Agenda 21eko Foroak egingo duen azkeneko Foroaren eguna aldatu da.** Saio horretan hirigintzako gai bat aztertuko dugu eta Ixiar, udal arkitektoa, bertan egotea behar dugu. Guk finkatutako egunean berak ezin duenez, eta akta hau idazteko azken unean izandako aldaketan ondoren, foro hori **ekainaren 7an (astelehena) izango da arratsaldeko 18:30ean** (eta ez bileran esan zen ekainaren 3an). Aldaketak eragozpenik ez sortzea eta zuen parte hartzea izatea espero dugu.
- **Aste Berdea, 28tik ekainaren 5era.** Momentuz, hauek dira urte honetarako aurreikusitako ekintzak:
 - *Herriko merkataritza berdea sustatzeko kanpaina*, Ilinti merkatarien elkartearen laguntzarekin. Aurreikusitako ekintza informatiboez gain, produktu ekologikoen saski bat zozketatuko da.
 - *Bidegorriaren erabilera sustatzeko kanpaina*, kalean bizikletak zaintzeko tailerrak ipiniz.
 - Aurreko urteetan bezalaxe, *Ibaialderen edizio berria*, gure ibai eta errekatxoetan dagoen flora eta fauna aztertu eta ezagutzeko. Taldea animatuta dago; beraz, aurten berriro egingo dugu.
 - *Mendi-irteera Aranzadi elkartearekin*. Datorren ekainaren 12an, goizean, egitea dago aurreikusita.

Inmak adierazi digunez, *aurten Aste Berdean egiten ziren ohiko ekintza batzuk bertan behera geratu dira*. Zehazki honako hauek: RENFEkoekin batera antolatzen zen bizikleta/trena jardunaldia, argazki lehiaketa eta ikastetxeekin batera egindako "Eskolara mila zangoan" izeneko ekintza.

Aurrekontuak murrizteaz gain, bestelako arrazoiak egon dira ekintza horiek bertan behera uzteko. Inmak *ekintza horiek baliagarriak direla eta hausnarketa egitera eta ekintza horiek hobetzera gonbidatu gaitu*. Horrekin geratzen gara!

Azkenik, Jon Erramunek egun hauetan udaletxean INMA, "Haurtzaroa eta ingurumena", proiektuaren emaitzak eman direla ezagutzera jakinarazi du. Proiektu hori, besteren artean, Zumarragako ospitalearen laguntzarekin burutu da. Azterketan hainbat faktoreren (airea, elikadura, ura,...) ingurumen-kalitateak gure osasunean duen eragina aztertu da. Eta Jonek dioen bezala: *"gure gorputza produktu kimikoen eta bestelako substantzien kopuru zehatza onartzen duen botila antzeko bat da; horrela, botila bete ahala edo gainezka egitean gaixotasunak sortzen dira, hala nola, produktu kimikoekiko minberatasun-sindromea"*.

Gaurko gaiari heldu diogu: Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana.

Aspalditxotik ari dira Legazpiko merkatariek merkataritza biziberritzeko Plana (METAPLAN) lantzen. Inmak eta eskualdeko merkataritzari laguntza emateko kabineteko Aitziberrek gogora ekarri digute gai hori Legazpiko Agenda 21eko Foroan aztertu dela. Zehazki, orain dela urtebete gure herriko merkataritza hobetzeari buruz hitz egin genuen; hausnarketa egin eta ideiak eman genituen. Ideia horietatik honakoak azpimarratuko ditugu:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- ▶ **Produktu "bereziak" eskaintzea** (eta "merkatuan sartzen ari direla" ikusten direnak); adibidez: Produktu etikoak eta bidezko merkataritzakoak, produktu ekologikoak, herriko produktuak,....

Gainera, merkataritza biziberritzeko Planaren barruan *erosteko ohiturak eta xehekako merkataritza aztertu dira*. Aitziberrek eskualdean egin diren 400 inkestetatik atera diren datu interesgarriak azaldu dizkigu. Zehazki honako hauek:

- Legazpin, *denden batezbestekoa 1000 biztanleko 14,1 da*. European batezbesteko hori 8 da; hemen, beraz, goitik gaude.
- *Galdetu diren 400 pertsonetatik %75 pozik edo oso pozik daude zonaldean dagoen merkataritzako eskaintzarekin.*
- Hauek dira alderdi sendoenak: *arreta eta gertuko harremana.*
- Baina, *bete gabe dauden beharrak* ere antzeman dira, hala nola: etxerako gauzak, edertasun-produktuak, altzariak, kirol-produktuak, telefono mugikorrak,....
- *Erosteko ohiturei dagokienez, oro har, gazteek gutxiago erosten dute herriko dendetan.*
- Hauek dira erosketak egiteko aukeratzen diren lekuak: Donostia, Gasteiz, Bilbo, Barakaldo, Olaberria, Beasain, Tolosa....



Etorkizunerako antzematen diren joerak hauek dira:

- Kontsumoan eragina duten gai berriak daude. Gaur egun bestelako kezka nagusiak daude, hala nola: segurtasuna, ingurumenarekiko errespetua, energia eta lehengaiak aurrezteak, garapen iraunkorra eta elkartasuna,....
- Merkatu-nitxo berriak agertuko dira: Osasunera eta bizi-kalitaterako onak diren elikagaiak kontsumitzea (hemen indar handia dute produktu ekologikoak).

Orain, informazio guzti hau mahai gainean dugula, aurten ondoko ideia landu da: Ohiko produktuez gain, **Legazpiko denda desberdinetan "produktu berdeak" eskaintzea**. Eta esan eta egin! Gai horren gainean egin dute lan Legazpiko hainbat dendarik. Hona datuak:



- 13 dendarik prestakuntza espezializatua jaso dute.
- Ingurumenean eragin txikiagoa duten produktuen eskaintza zabaldu dute.
- Prestakuntza hori gainerako dendariei eskaintzea proposatu dute.

Eta gaur Legazpiko Agenda 21eko Forora etorri dira egin duten lanaren berri ematera eta bestelako informazioa eta usteak konpartitzera.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Merkataritza berdea Legazpin: Emandako urratsak eta neurri berriak

Gaian zentratu eta non gauden ezagutu ondoren, tailerrean ondoko gaiez arduratuko gara:

- **Legazpiko denda batzuk duten “produktu berdeen” eskaintza ezagutzea.**
- **Gaiaren gaineko balorazioak eta usteak elkar trukitzea.**

Eta orain, lanera!

Taldetan banatu gara eta tarte bat eskaini diogu Legazpiko dendariak ekarri dituzten produktuak aztertzeari. Produktu horiek ingurumenean eragin gutxi duten produktuak dira eta haien gaineko informazioa irakurri dugu, ekoetiketak identifikatu ditugu,.....



Eta hainbat gogoeta partekatu ditugu:

Gure gogoetak kontsumitzaileak garen aldetik

“

- *Zenbat “produktu berde” dauden! Ez genekien eskaintza hain zabala eta desberdina zenik bertako dendetan. Oso ondo baloratzen dugu Legazpiko dendariak gai horren gainean denbora gutxian egin duten ahalegina.*
- *Zenbait produktutan, nekazaritza ekologikotik etorri arren, bilgarri larregi erabiltzen dela ikusi dugu. **Koherente izatea eta koherentzia hori islatzea oso inportantea dela** esan dugu.*
- *Prezioa izan daiteke ingurumenean eragin txikiagoa duten produktuak erosterakoan atzera eragin dezakeena. Hala ere, hori ez dela beti horrela uste dugu; badaude nekazaritza ekologikotik datorren produktua izatea eta ekoizpen-prozesuan ingurumena zaindu duen produktua izatea baloratzen duten pertsonak.*
- *Aurrekoarekin jarraituz, taldeak dio **energia erabiltzen duten produktuetan**, hala nola, bonbillak, etxetresna elektrikoak,.... energia-eraginkorrak izatea baloratzen dela (etiketan A sailkapena agertzea), haien balio-bizitzan energia aurrezte ahalbidetzen dutelako eta, beraz, merkeagoak ateratzen direlako.*
- *“Produktu berdeak” erosterekin lotutako bestelako arazoak hauek dira: ingurumenarekiko ardura, **familiaren osasuna...***
- *Ekoetiketei esker errazago identifikatzen ditugu ingurumenean eragin txikiko produktuak. Hala ere, etiketa asko daude merkatuan eta ezinbestekoa da horien gaineko informazio gehiago izatea.*
- *Arreta eskaini behar zaio produktuen gaineko informazioari. **Zenbaitetan, publizitate maltzurra ematen da**, produktu berdearen mezuarekin. Horregatik, Legazpiko dendariak ondo prestatuta egon behar dute ingurumena errespetatzen duten produktu hoberenak eskaintzeko.*
- *Oso inportantea da erosteko momentua. Normalean oso azkar egiten dugun gauza da eta **“kanpokoa engainagarria izan daiteke eta ohartu gabe erosi”***
- *Kontuz! Ezin dugu ahaztu **arduraz erosteko lehenengo urratsa gure beharrak berraztertzea dela eta, ahal den neurrian, gure kontsumoa murriztea***

”

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Gogoeta guzti horiei, ingurumenean eragin txikia duten produktuen gaineko prestakuntza jaso duten Legazpiko dendarien taldeak eman dizkigun bestelako gogoetak gehituko dizkiegu.

“

Dendarien gogoetak

- Hauxe da ikasi dugun gauza bat: “ingurumenean eragin txikiko produktuez” ari garela. Horrek esan nahi du merkatuko batezbestekoarekiko ingurumen-hobekuntza sortzen duten produktuak direla. Baina ez du “perfektuak” direla esan nahi, baliabideak beti kontsumituko dituztelako eta ingurumenean eragina izango dutelako (txikiena izan arren).
- Jaso dugun prestakuntzaren ondoren, orain gure produktuak “ezaguera gehiagorekin eta zentzuz” erosten ditugu. *Hobeto ezagutzen ditugu dendan ditugun produktuak.*
- Dendan “produktu berdeak” bagenituela ohartu gara baina ez genekien. Orain prestatuta gaude eta gehiago dakigu; ondorioz, hobeto aholkatu eta lagundu ditzakegu gure bezeroak.
- Era berean, *gure hornitzaileengan ere eragin dezakegula* ikasi dugu. Orain galdetu egiten diegu, ingurumenean eragin txikiago izango duten produktuak eskatzen dizkiegu eta haiek ere “mugitzera” behartzen ditugu.
- *Merkatua garatzen ari dela* ohartu gara; hala ere, sektore batzuk mantsago doaz (adibidez, oinetakoak). Beste produktuetan eskaintzak eta eskariak barneratuta dute gaia, adibidez, bonbillak edo etxetresna elektrikoak direnean.
- *Legazpiko Udala ere eredugarria da.* Udalak egiten dituen erosketetan (bulegoko materiala, papera, argitalpenak...) ingurumena zaintzeko irizpideak hartzen dira kontuan eta horrek herriko dendetako eskaintza ere hobetzera bultzatzen gaitu.
- *Aurten barruko aldaketak, praktika onak eta hobekuntzak sartu ditugu gure dendetan.* Adibidez, produktuak apal berezietan eta ondo ikusteko moduan jarri ditugu; papera %100 birziklatua erabiltzen dugu edo FSC edo PEFC ziurtagiria duen papera; plastikozko poltsa biodegradagarriak erosten ditugu,...
- *Bezeroek behar dituzten* eta oraindik Legazpin aurkitzen ez dituzten *produktu berdeak eskatu behar diote saltzaileari. Hori inportantea da.* Gu arduratuko gara produktu aproposenak bilatzeaz eta, horrela, guztion artean, gure eskaintza osatu egingo dugu.
- Eta, azkenik, gogoeta batekin bukatzen dugu: dendariok ikasten ari gara eta gure aletxoak jartzen saiatzen gara. *Urratsez urrats, gauza gehiago egin ditzakegu!, “bonbilla dagoeneko piztuta dugulako” eta ez gaituzue lokartzea uzten.*

”

Ugariak dira gogoetak, eta guztiz interesgarriak! Ez dugu astirik izan gai batzuk sakonago aztertzeko. Hala ere, **bagoaz poliki-poliki eta izango dugu elkarrekin aurrera egiteko espazioak partekatzeko aukera.**

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Bukatu aurretik: Legazpiko kontsumitzaile garen aldetik erantzun beharreko hainbat galdera

“Luzapen denboran”, Legazpiko dendariak garrantzitsuak iruditzen zaizkien gaietara buruz egin dituzten galderak biltzen duen galdeketa banatu dugu. Hauek dira galderak eta erantzunak:

• Erostera zoazenean, arreta jartzen diezu ingurumenean eragin txikiko produktuei edo produktu “berdeei”? Ezagutzen al dituzu ekoetiketak eta badakizu zer adierazten duten?

- Bai, ezagutzen ditut batzuk
- Ez ditut etiketak ezagutzen
- *Jateko produktuetan bereizten ditut baina bestelako produktuetan zailagoa da. Jateko produktuetan bereizten ditut baina bestelako produktuetan zailagoa da.*
- Bai, arreta jartzen diet
- Ez diet beti arreta jartzen. Gaur ohartu naiz etiketa batzuk ezagutzen ditudala
- Gaur ekoetiketa gehiago ezagutu ditut; hemendik aurrera arreta handiagoa jarriko diet.
- Ez diet arreta jartzen; ez ditut ekoetiketak ezagutzen
- Etiketaren bat ezagutzen dut eta gaur besteren bat ezagutu dut
- Ez diet arreta jartzen eta ez ditut ezagutzen Gaur hemen ikasi dudana
- *Bai, etiketa guztiak ez ditut ezagutzen, baina batzuk bai.*
- Ez diet arreta jartzen
- *Bai arreta jartzen dut. Eta bai, etiketa batzuk ezagutzen ditut.*
- Ez diet arreta gehiegirik jartzen; etiketa batzuk bakarrik ezagutzen ditut
- Ez gehiegi
- Arreta jartzen diet baina ez ditut ekoetiketa guztiak ezagutzen
- Arreta gutxi jartzen diet

• Ezagutzen al duzu “produktu berdeak” eskaintzen dituen dendaren bat Legazpin?

- Bai, gai hori lantzen duten asko ezagutzen ditut
- Bai
- *Bai, adibidez: Lanbroa eta beste belar-dendak, Apatxo, fruta-denda.*
- Bai
- Bai
- Bai
- Bai
- Bai
- Ez dut ezagutzen
- Ez dut ezagutzen
- Bai
- Ez dut ezagutzen
- Bai
- Bai, belar-denda, Apatxo,....
- Bai
- Bai, hainbat
- Bai

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

• Zehatzago, ezagutzen al duzu Legazpin eskaintzen diren "produktu berdeak"? Faltan botatzen al duzu produkturen bat? Zein produktu aurkitu nahiko zenuke zure herriko dendetan?

- Uste dut ez dudala eskaintza osoa ezagutzen; beraz, ez dakit produkturen bat falta den. Edonola ere, gure dendetan eskaintza zabala aurkitu nahiko nuke
- Ez dut gehiegi ezagutzen dagoen eskaintza
- Bai, arropa aurkitu nahiko nuke
- Hasieran, ez dut ezer faltan botatzen
- Ez dut faltan botatzen
- Bai, ezagutzen dut Legazpiko "produktu berdeen" eskaintza
- Batzuk ezagutzen ditut baina ez asko; beraz, ezin dut nire iritzia eman
- Ez dut ezagutzen
- Egia esan, ez dut produktu berdeen eskaintza ezagutzen
- Elikagai ekologikoak aurkitu nahiko nuke: frutak, barazkiak eta janaria, oro har
- *Batzuk bai ezagutzen ditut, baina zehaztasunak falta dira, denda konkretuak. Adibidez: Arropa, zapatak, bidezko merkataritza.*
- Ez dut eskaintza ondo ezagutzen
- Bai
- Nik uste dut eskaintza handiagoa denean, erosketa (zentzuduna) handiagoa izango dela.
- Gaur produktu berde gehiago ezagutu ditut Nik elikagaiak ezagutzen nituen gehienbat; harriduraz ikusi dut produktu berde asko daudela.

• Oro har, informazio gehiago behar duzu produktu berdeei buruz? Zer nolako informazioa iruditzen zaizu beharrezkoa? Zer jakin nahiko zenuke?

- Bai, informazio gehiago behar dut Bai produktuak ingurumenean duen benetako eragina jakin nahiko nuke eta nondik datorren.
- Uste dut arreta handiagoa eskaini behar diodala produktuen gaineko informazioari.
- *Etiketean gida moduko bat egin daiteke.*
- Bai, informazio gehiago behar dut Gaur egun dauden etiketekin orri bat presta daiteke; horrela denok ezagut ditzakegu eta horren berri eman.
- Bai, informazio gehiago behar dut Dendaria naizen aldetik, produktu horiek dendan nola jar daitezkeen jakin nahiko nuke
- Bai, inportantea iruditzen zait informazio gehiago jasotzea.
- Bai, informazio gehiago behar dut Gaurko saioa aurkikuntza izan da.
- Uste dut informazio asko falta zaidala.
- *Produktuen osagaien jatorria, nongoak diren.*
- Bai, eta denetatik pixka bat.
- *Bai, non erosi daitezkeen jakin nahi dut. Zer eskaintzen duten, propaganda egin behar da zentzu honetan, beharrezkoa da.*
- Ondo ezagutu nahiko nuke zigilu edo etiketa bakoitzaren esanahia
- Bai, informazio gehiago behar dut Adibidez, paperari eta garbiketa-produktuei buruz
- Bai, informazio gehiago behar dut Etiketak korapilatsuak dira.

• Eta zu, prest al zaude produktu "berdea" erosteko diru gehiago ordaintzera?

- Bai, produktua kalitatezkoa bada
- Bi, uste dut merezi duela
- *Bai*
- Zalantzarik gabe
- Bai
- Bai


Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Bai
- Bai
- Bai, beti ere neurrigabea ez bada
- Alde handirik ez badago, bai
- Hasiera batean ez
- *Ni bai. Hobe gutxiago kontsumitu eta kontsumitutakoa kalitate onekoa izatea.*
- *Bai, orain kontsumitzailea naiz eta asko pozten nau ekimen hau, askotan kanpora jotzen dudalako.*
- Prezioa gehiegizkoa ez bada, bai
- Bai
- Zertxobait gehiago bai, baina ez gehiegi
- **Jasotako bestelako iruzkinak:**
- Interesgarria izango litzateke gai horren gaineko tailerrak antolatzea eta herritarrei oro har eta gazteei batik bat zuzentzea; izan ere, egin den inkestan gazteek erosketak Legazpitik kanpo egiten dituztela egiaztatu da. Horrela, bi helburu lortuko genituzke.

Legazpiko merkatarien izenean, eskerrik asko guztioi!!! Eskerrik asko gure galderak erantzuteagatik eta, horrekin, eman beharreko hurrengo urratsak finkatzen laguntzeagatik.

Bukatu egingo dugu: eta gaur oiloak eta arrautzak izango ditugu hizpide.



Gaur aztertu dugun gaiarekin zerikusia duenez, Inmak azaldu nahi digun gaia da. Oiloek eta arrautzek ari gara.

Esan digunez, erosten ditugun arrautzek kode alfazenbakizkoa daramate inprimatuta azalean.

Lehenengo zenbakiari eskainiko diogu arreta! Zer esan nahi du? Ze informazio ematen digu kontsumitzaileoi?

- **Lehenengo zenbakia 3 denean**, oilo hori kaiolan pilatuta bizi dela esan nahi du; kaiola horietan oilo bakoitzaren espazioa 600 cm²-koa da, hau da, folio batek okupatzen duena baino leku txikiagoa.
- **Oiloaren kode-zenbakiaren lehenengoa 2 denean**, oilo horrek arrautza lurrean jarri duela esan nahi du baina oiloek betetako pabilioi batean; leku horietan metro karratu bakoitzean 12 oilora arte pilatzen dira.
- **Lehenengo zenbakia 1 denean**, arrautza hori kanpoan libre dabilen oiloak jarri duela esan nahi du.
- **Lehenengo zenbakia 0 denean**, arrautza hori ekoizpen ekologikokoa dela esan nahi du.

Eta horrela, datuen artean eta merkataritza eta produktu berdeak aurkitu beharreko mundu bat dela ikusi eta gero, agur esaten dugu! **Guztioi, eskerrik asko!!! Gaur, beti bezala, atsegina izan da guztiokin lan egitea!**